

AXULAR SARIA

ITXU ABILA

Itxu batek zauzken bere diruak altxatuak aritz zulo batlan. Aritz hura zen herriko nekazari aberatsenana. Honek han aurkitu zituen diruak eta ebatsi zituen lakirik etzirela berak. Itxuak bildu zituelaik bertze diru batzuk gan zen altxatzera aritz zuloa baino bere diruak norbaitek hartu zituen. Gogora etortzen zait izeten al dela nekazari aberats hure. Gaten da bararengana eta erraten dio:

- =Nik badakit zu gizon ona zarela, horregatik eldu naiz konseju baten bila=
- =Erran bada=
- =Baditut diru batzuk altxatuak leku on batlan. Bildu tut bertze horrenbertze eta zuk erran biar datazu non altxatuko otetuten, len biziko leku oncan edo bertze batean=
- Nagusia gogoratzen zaito: =Baldin uzten balinbatu nik dakiten lekuan, bildikotut nereganca= eta hola erran zion:
- =Zuk diotzu lenbiziko lekua dela arras ona, orduan zuk inen duzun hobereña da, heken ondoan uztea=
- =Hori bera iduritzen zait neri ere, hoi eginen dut.
- Eskerririkasko zure konsejuaz=
- Itxuak egin zuen sinesten batu bezala eta gan zen bere etxera, iduriz diruen eske.
- Nekazari aberatsa gan zen bere etxera, hartu zituen itxuaren diruak eta lasterka uzti zituen aritzaren zuloan, berehala emanez: =Bertze horrenbertze izanen tut=
- Itxua allagatu zen zuloa magusiaren ondolik eta Haren pozal Berak uste bezala han zauden bere diruak aintzinean ebatsiak. Hartu, sakelean sartu eta denak bere etxera eraman zituen, ustez diru galdutakoak zauzkenak.

KONTUA


Egun batez Martin Batzabalekoa bazablen zezena pasatzen, maingu eta maingu zezena.

Martin Pordoin gizon trastea han pasatzen zela galdetu zion:

- =Zer pasatzen zait zeren horri?
- Eta Martin Batzabalekoak erraten dio:
- =Azakala arrotioak laten diokatek=
- Pordoinek: =Horren erremedioa etxean baduk=
- Batzabalek: =Zer erremedioa dut ba=
- Pordoinek: =Utzak zezena etxean eta pagatzen balin badituk bi baso ardo Dolatxean, hek edan artean exraugo dat=
- Batzabalek utzi zezena etxean eta atera zituen bi baso ardo Dolatxean, Pordoin eta beretako. Eta edaten ari zirelarik Batzabalek erraten dio:
- =Erran zak zer erremedio den hori=
- Pordoinek: Atera behar duk bertze bi baso ardo zeren gizona ere bi zangoen gania hobeki egoten duk=
- Eta bigarren basoak edaten ari zirelarik Pordoinek erraten dio Batzabalek:
- =Ik etxean izango duk zinger-magra, ez?
- Batzabalek: =Ba=
- Pordoinek: =Zezenari anakatik lotu behar diok zinger-magra hori eta ikusiko duk nola arrotioak utziko duten zezenaren azakala bakcan=

MIREN AINGERU LARRALDE 9 urte
ARIZKUN-GO ESKOLAKOA

NAFAR - IZKUNTZAN ORRIA



BAZTAN

Donostia-ko «Goizaldi» Dantzari Taldeak aurtan 25 urteak betetzen dituela eta hortaz bere sorreraren zilar-etaiak ospatu beharez, kultura folklore eta bertze zenbait ikusgarri antolatuak ditu. Baztandarrak ere «Goizaldi»ren antolaketa horietan leku bereki bat izan dugu, Baztango izena ohorez vetal daukutelarik. Martxoaren 15-an Donostia-ko Herriko Etxeko Sala Nausian, Nafarroako Dantzari Elkartearen Zuzendarri den Patxi Arraras jaunak Baztani buruz hitzegin zuen, denbora berean Arizkun-go mutil-dantzariak saio eder bat egin zutelarik.

Patxi Arraras jaunak Baztango ibararen gauzetaz mintzatu zitzaizun, hemengo herrietaz, ohiuretzaz eta dantzaz. Lehenagoko denboretan egiten zituzten eztaietaz eta beren

xehetasun guzkiekin garbiki adieraziz. Hain famatuak ohi ziren «loiak» eta ezta hoitan. Baztan-en egiten ziren eztaietan, zer ohiurak izaten ziren eta nolako besta ederrak egiten zituzten. Arraras jaunak Baztango dantzaz ere auzit mintzatu zitzaizun, Mutik-dantzak daukan nortasunari buruz eta bal Irri-dantzak ere zein jostakinak diren ederki adieraziz.

Arizkundarrek, Sagar-dantza, Bizker-dantza (purd-dantza) eta Tellerin erakutsi zituzten. Patxi Arraras-en solasaldia guziz jakingarria, ez ginazkigun gauzak ederki agertu zizkigularik. Haren ohoretan esku-zarta ederrak jo zituzten. Gure dantzarien ekinaldia ere denen gogokoa eta ikuslariek beren bozkarioa ongi eta bero-bero agertu zutelarik.

Beriz ere Baztango mutil-dantzak Donostia-ko hiri ederrean erakutsi ditugu eta egia erran, eginkizun horrek bozkarioz betetzen gaitu.

Zorionak «Goizaldi» Elkarteari, Patxi Arraras jaunari eta goraintziki gu ikustera etorri ziren guzietari.

M. IZETA

EUSKAL HERRIAN BARNA

GERO Taldea

Bilboko «El Mensajero» delakoaren Sailla den ETOR de-ritzana euskal liburuak argitaratzeko sortu zan. Orain berriki izena hori aldatu da eta GERO hemendik aurrean deituko da.

Bere azken liburua bidaltzean, hau da ITSASOA UR-BAZTER LUZEA DA Mikel Ugaldereña, agiri bat aritu dugu hau esanez: «GERO taldea nortzuk osatzen dugun jakin arazi dugu gure liburuak onartzen dituzun horri. Hona hemen izenak: Jose M^o Aranalde, Miren Ione Azurza, Julien Lizundia, Iñaki Larrañaga, Mikel Atxaga, Anton Artamendi, Angel Lertxundi, Mari Karmen Garmendia, Gorka Knörr, Xabier Lete eta Ugaldere. Ikusi dezakeguz, GERO taldea lehengo ETOR bera da, berriaz batzuekin. Berriaz horiek, batetik kanpoan estudiatzen ari diren batzuen zuloa bertzez, eta bestetik taldea birbiltzeko, egin ditugu, baina guziaz lehengo talde berak erabaki du...»

Euskeran alde eta euskal literaturaren alde lehen bezala lan egiten jarraitzeko desiatzen diotegu.

Udako «Euskal Unibertsidadea»

Euskaltzaindiaren Bigarren Lehendakari den Heritschellar jaunak datorren udarako «Udako Unibertsidadea» delako bat ari da prestatzen Baionako edo Donibane Lohizuneko Lizean egiteko. Heritschellar jaunak dionez Frantzi aldeko Agintarian lsgurtze guziaz eta baimenak lortuak daukiza dena ongi baño ongi egiteko. «Udako Unibertsidadea» honek Euskal Akademiaren babesa izanen du.

Erabili behar dituzten galak hauek dira: Euskal Literatura, Liturgistika, Kondaira, Geografia, Etnografia, Matematika eta Zientziak.

Oraindik ez dakigu zein egunetan izanen da, Baionan izatekotan Uztailaren azken egunetan edo Abuztuaren lehengo egunetan uste dugu ospatuko dela, baño Donibane Lohizuneko Lizean egiten baldin bada Abuztuaren azken egunak edo Irailaren lehen egunak izanen dira egokienak.

Azken berriak jakituen gainean egon bezin laister emanen ditugu.


Ipar Euskal Herriko euskal poetak

Michel Labeguerie mediku, euskaltzale eta Ipar Euskal Herri aldeko izanikako Diputadu famatuaren semeak eusker kantatutako diska bat atera berri du, NAFARRA du bere izena. Eneko Labeguerie gazteak abots ozena, giarrez, eta sut-suki kantatzen du.

Beste mugaz beste aldeko euskal poeta bat Eñaut Etxamendik berri bat atera du ZUTIK deitzen dena. Etxamendik berri hirugarren kantari agertzen zaitu: Larralde. Bi disko hauek ederrak dira benetan. IKUSLE

BARCELONA'tik

EUSKERA



Arratsaldeko ordu bata da, Barcelona'ko akeitetxe batean nago. Jose Deunaren eguna da, ta emendik, jaiegun guzietan bezela, milioi bat gizon-emakume landara irten dira.

Eresi ederra entzuten da. Napolitana dirudi. Geldi-geldi bero goxo zenbaitek nere gorputza menperatzen du ta ontatik nere gogora igitzen da. Bat-batean irudimena egan asi da. Ontan, nik, atsegin aundia artuz gañera, oroipen zabal-zabala erdiesten dut. Euskal Herri osoaz lerdik oroitzen naiz: lehen leinua dakusat eta onen semea entzuten dut: EUSKERA. Lehen leinua ugaltzen eta EUSKERA Euskal Herriko lur osoan zabaltzen da. Au pozal! Gure mintzo, gure ele, gure EUSKERA, Euskal Herriaren gogoa, aztu da.

Mendi, aran, zelai, uri ta herri guzietan bakarrik EUSKERA entzuten dut. Amar mulla urtez gure Jainko, Basajaun, eta sorginen izkuntza, gure asaben biotzean bizi izan zan. Beste izkuntzak jalozen eta iltzen dira. Gurea ezta iltzen, betikoa da-ta. Bein ere ezta ilko, guk nai badugu. Zeruan itz egingo dugula ere uste dut.

Orain berreun urte ez dakite euskeraz nere herrian. Beraz, nere gurasaok (G. b.) eztekiten, Aspaldititik Barcelona'n bizi naiz eta dakidana, nerez, ikasi dut emen. Nik egifia, guztiok egin dezakegu. Anaiak, zorioneak izan nai baduzue, euskeraz itz egin, idatzi eta bizi zaitezte. EUSKERAK biotza goratzen eta alaitzen du. Gure gogoaren askatasuna da, Onak urritasun eta asperralditik jaregiten gaitu. Euskaldunak jakifize elegiten duenean, bere burua zorionekotzat dauka, zoriontasunaren iturria gure barruan delakoz.

Anaiak, halaxe da, ikertu ezazute ta hala dela ikusiko duzue.
AGUR AIDIXKIDEAK!
Olza. (73-3-19)
(Kaseka'ko herrian sortua)

ARTZEA NAPARROAN

Gaur oraindik noiz Beinka Naparroa'ko aldizkariak artzaren batek Erdiherriko artzaren ondandimendia aundiak egin dituela esaten digute. Artzaren gure artean gaizki ikusia izaki.

Orain dala gutxi Frantzia'n liburu eder bat agertu da sar-taldeko Aunamendi'ko Artzei buruz egina; egilearen izena F. Merlet da. Gizon jakintsu au, artzaren ondolik Naparroa ta Aragoi'ko mugetan barna ibilli da. Bertatik bertara ikusi nai zuan eta nola bizitzen zan jakin. Ikustea ta nun bizi zan jakitea, ilabete asko mendian egotea kosta zaizkio. Pixkanaka artzaren az-tarnak biltzeko zer egin asmatu du. Geroxeago maite ditun janariak ekarri ditzio. Be-ti ixilka ibilli da. Artzak oso gutxi bear bai du iges egiteko ta ezkutatzeko. Bizpauru urtearen buruz, azkenean berri asko jakin ditu. Oso basa bere ederra bezela agertzen digu; buru onekoa, argia, oroi men aundikoa, bakardade zalea, paketsua, izkuntza bizi da-na. Ikusten da bizidun eder


bat dala ta oso kalte gutxi egiten duna. Gaur oso toki basatietan bizi da. Oso goran dauden mendik lepoak atsegin zaizkio. Gure basoko pix-tietan ederrena degu, baiñan oso bakan. Era bat baztertu dute. Gure gizon jator onek, artza babestea ta zabaltzen laguntzea bere liburuan eskatzen digu. Izadia gizonaren bearrakoz ingurua omen da ta nolako dan jakitea eta ezagutzeak pozik aundiena ematen omen dio ta osomen da. Izadia gordetze ta babesteakin gizarteak asko ira bazten omen du. Ala dio berak. Gainera gizonari ta bere ondasunet ez diela bestelako gaizki egiten. Gose gorriakin edo bere burua gaizki ikusi ezker, orduan bakarrik bel-durgarria omen da. Beraz ez du aragirik jaten. Bere egu-neroko janaria bestela biltzen du. Batez ere landare asko jaten ditu, zaiñak aziak, basoko arnariak, gaztañak, urrak, in-txaurrak, basakarakak, mar-rubiak. Ximaurriak oso atse-gin zaizkio, Amurrua ere bai, uretan arrapatzen du. Busti

aldia artzea maite du. Etia biltzen gogotik alegintzen da. Abere usteldutakoak dauka-ten arrak pozik jaten ditu. Gauza guzti oietatik basoon naikoa biltzen du. Neguan ber-ritz, basopetan orbelaz kabia egin ondoren, lo lasai egiten du.

Esaten digunez, Xibero ta Biarno'n ba omen dauka 25'ten bat artza. Ori Frantzi alde-tik, Oien erdiak Espainia alde-tik beriz.

Frantzi aldeko mendi sal-la aundi ori, Estaduak bere gain artu du, dagon Izadi be-rexia al dan obekiena zaintze-ko. Artzaren eizea galarazia dago. Orain, artzen bat kaltea egiten ari dala ikusi ezker, bereala iltzen omen dute. Gal-lierakoan ondo babestuak dau-de ta elztariak zerbait egin ezker zigortuak.

Aunamendi'ko ortan, Na-parroak ikaragarriko toki ba-satiak eta ederrak dauka. Orain dala gutxi ikusi ditugu, Larre izenekoak, tokiak bai bel-durgarriak. Aietan artza alka-te. An lasai dabil. Jakina, oso gutxi daude, askonaz bi, En-




Larra Erroñkari'a

tzun degu toki eder guzti olek babestu ta bere gain artza-kotan Diputazioa dabilela. Be-jon diela. Orain arte mendi zoko olek gaizki ikusiak zeu-den; gizonak artzen arerra ongi egiten. Gaur beriz bere ama-tsa ta atsedena, Naparroak bere gain artzen dituela, baita

zaintzen ere. Artza babestu nai du.

Orduan bai kontratuko gi-ñakela izadia zelien gauza ederra eta aberatsa dan. Ba-soko bizidunak ez dira dese-gitiko, gizonarentzat baitak. Artzaren bizitza bertan azter-tu dezakegula, zelien ederra

dan izadia oartuko gerra. Euskaldunok esan dezake-gu, artzak ba ditugula Na-parroan. Larra izeneko Aunamendi'ko toki baso'ra Joan ezker ba dakigu arogo alka-tea artza dala. Agertu bear diogu zor zaiion begiramena. LATXAGA



Joan den mendeko LOS ANGELES-eko, alpatu Aldizkariak, zenbait zatifo ekertzen ditugu beriz ere. Goytino jaunaren idaz-tan-keraren erakusgarri, berezik.

«SAN DIEGO»-ko berriak: Paul Poucaborry frantzes batek joan den ortzegunean bere burua hil du, armatzego 9 oronetan, gure herriko (San Diego). Laugarren karrikari. Biz-nabala batekin lepoa moztu du ahal bezain barna. Kozinera zan, 58 urte zituen eta LOS ANGELES-etarrik, berriketan hunat yina (eto-rria). Botoila bat aguardient gorputzaren on-

doan atxerman dute, erdi hustua; huntarik ageri da ezduela egarriak hil.

OROTAKO BOTIKA

A. DOLHEGUY edo hobekiago Doktor DO-LHEGUY, zenbait denbora huntan gure artean dugu. Sandiego-rat yin (ez) gueroztik arras sendatu da eta arindu. Hemen (San Diego) erremedio baten egulteko sekretua erosi du eta hemendik lekora (goiti) gure herriarrik ez da gueiagot hilen, Doktora he-men den denbora.

«Erremedio hortaz eritasun guziaz senda-tuak dire; sabelako eta buruko mina, behel-

California'ko euskal Aldizkariaren Berrien segida (VII)

tkoa eta gottikoa (oka), sukar, ezul eta hats-eskaz (hatsa laburra edo disnea), erre-medio horrek denak garaitzen ditu. Gauza balios, mirakulos eta xoragarri hori, Doktor DOLHEGUY-s Liniment deitzen da.»

«Hemendik lekora (goiti) eriek non borta jo, jakinen dute!!».

«TEHACHAPI-ko BERRIA. — Juan den astean DARWIN-etik yinak (etorriak), HEMEN ziren Domingo ETCHARREN eta Pedro ET-CHEPARE. Domingok bere negozio guziaz, bere mutli on batek ongu antolatutrik atze-mantu. Nahiz mutli ona kario duen, baten izateaz pagatzen du, bera ez denazguro lan guzien egulteko kapable.»

EUSKALHERRIA-1893 abotzuaren 4-garren numerotik.

«HAN-HEMENKA. — PORTUGAL-eko erre-guea gizon azkarra izan behar da, depexen (berrien) arabera bederen. Egun hautan be-raz, don CARLOS Lisboako karrika batean pasalatzen zan, bakar bakarra. Bet-betan, bi guizon joka ari direla ohartzen da eta hur-bildu ondoan, batek bertzea nabal batekin hil nahi duela ikusten du. Erregueak misera-blearen ondotar jauzi egulten du eta lotzen da hiltzalearekin. Borroka arizan ondoan, don CARLOS asesinoaz jabetzen da eta guizon Tzar hura polizia'ri itzuli du.

Segur naiz apur batez ezalda beriz kol-peka ari ko, Erreguearekin bederen.»

«CONGRESS-a. — Heldu den astelehe-nean CONGRESS-a Washington-en bilduko da zombait legue berrien egulteko. Kestione prin-zipalena, Aduanako legueen kanbiatzea izan-en da. Mc Kunley Bill deitzen den leguea, dena urratua izanen da eta legue hori kanbiamentu handiak eguinen dituzte. Ilea (artilea), klasa libroan emana izanen da, erran nahi baitu, kanpoko ileak ezduela sar-tzeko dretxorik pagatu beharko.»

«Bertze artikulio franko, klasa beran ezar-riak izanen dira eta beharba (da) orduan negozioak hobekizago joanen. Aste hortan, goait gaude (esperoan) zoin aeldat heidu den aizea ikusteko. Norat nahi itzulikan ere, ezda nehondik berri onik heidu. Eta gure Administrazioa demokrat hunez, ezdugu uste deus onik eguinen duen gure Erresuma-rendako.»

«Hala hola heldu den elektionetaraino be-harko dugu joan; eta orduan demokratik sekulakotz zafratuak izanen dire eta Adminis-trazione errepublicanoarekin negoziok pitzo-ko eta azkartuko dire.»

«Bainan ordu artino pazientzia hartu behar-ko dugu... eta hori da lan bortitzena izan-en. (Iuanaharra); (Gero ere gal beretik segituko dugu).

A. APAT-ETXEBARNE